



ERAGILE ETA HARPIDEDUNEI DEIALDIA

'Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza'-ren inguruko herritarrek elkartu nahi ditugu etzi Tolosan, argazkia ateratzeko. 4

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2010-10-28

VIII. URTEA 2.111. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA


WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



TAO berde gehiago jarri dituzte Tolosan barrena. I. GARCIA

«AUTOARI LEKUA IRABAZTEKO» TAO SISTEMA BERRITU DUTE

TOLOSA Asteartetik aurrera egingo dituzte aldaketak; bertakoentzat 505 aparkaleku gehiago egokitu dituzte z



Han eta hemen jasotako oroiarriak aurkitzen dira erakusketan. I. GARCIA

Txintxarri abesbatzaren ibilbidea ikusgai jarri dute

ALEGIA 50. urteurrenaren inguruan antolatut duten erakusketa Kultur Etxean aurkitzen da 6

Esperientzia Eskolan izena emateko aukera zabalik dago

TOLOSA Azken ikasturteko ikasleek euren diplomak atzo jaso zituzten udaletxean 3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**
bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteegunetan 09:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leiza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N.A.:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

 **lorekolore**
LUR ZERBITZUAK

LORATEGIA ETA BARATZERAKO BEHAR DUZUN **GUZTIA**

**SANTU GUZTIEN EGUNERAKO
ZENTROAK ENKARGUZ**
(Landerenak bain ere moztuak. Auzara zabalak)

**MEGU GARAIKO
LORAK SALGAI**

Aitune poligonoa, 4-G. OLABERRIA 943 88 30 53

Aberriaren 13ko 15159991 lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, beretik, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-ren Erabiltzaile automatizatu baten pasatutako diruak, erregistratu diren eskaintzen berrit emateko. Zure esku dago ikusirik, ezarritako, ezarritako eta kontu eginkorako eskubideak erabiltzea. Hala ere, nahi izanez gero, idatzi helbidea honetara: TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M.- Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa. info@tolosaldekohitza.info

TAO aparkaleku sistema eraberrituan bertakoek izango dute lehentasuna

Azpiegiturak » 505 leku egokitu dituzte bertakoentzat; TAO berde gehiago jarriko dituzte eta express guneak ere egongo dira erosketak egitera doazenentzat.

INIGO TERRADILLOS

Datorren asteartetik, hau da, azaroaren 2tik aurrera, hainbat aldaketa izango ditu TAO aparkaleku sistemak, batez ere, 1 Zonaldeko eremuan. Hiru dira nabarmendu beharreko puntuak: bertakoentzat aparkatzeko gune gehiago gordeko dituztela, TAO berdea herriko eremu gehiagotara zabalduko dutela eta 20 minutuko muga izango duten express aparkalekuak jarriko dituztela.

Bertakoentzako izango diren aparkalekuei dagokienez, denera, 505 plaza egokituko dituzte. Horietatik 167 gune gorri berriekin osatuko dituzte, 38 Rondilla kalean gordeko dituzte, baina soilik



Pedro Aizarna, Jokin Bildarratz, Yurre Peñagarikano eta Luis Mari Lasa, atzo Euskal Herria plazan eginiko agerraldian. I.T.

19:00etatik aurrera, eta gainerakoak Larramendi, Belate eta Zumardi Txiki guneetan banatuko dira. Azken hauetan, ere 19:00etatik aurrera izango da soilik bertakoentzat, eta gainerako orduetan TAO urdin moduan funtzionatuko du.

TAO berdea da egun dagoen merkeena eta goizez, arratsaldez nahiz egun osoan aparkatzeko aukera ematen du. Bada, orain arte

geltokian baino ez zegoen eta aurrerrantzean beste 166 plaza gehiago egongo dira herri osoan banaturik.

Beste berrikuntza edo aldaketa handietako bat express gune berria izango da. Dendariek Udalari proposatu zituen erosketak egitera bideratutako gune bat jartzea, eta horrela sortu dira 20 minutuko muga izango duten aparkalekuak.

Minutu bakoitzeko zentimo bat ordaindu beharko da, eta makina berezietan eskuratu ahalko da bertarako txartela.

«Autoari lekua irabazten»

Jokin Bildarratz Tolosako alkateak, Pedro Aizarna Gertek aparkaleku sistema berria aztertu duen enpresaren ordezkariak, Yurre Peñagarikano Mugikortasun zi-

negotziak eta Luis Mari Lasa udaltzaingoaren ordezkariak eman zuten atzo eginiko agerraldian aldaketan berri. Bildarratzek «autoari lekua irabaztea eta oinezkoari lehentasuna ematea» dela Udalaren apostu garbia azaldu zuen, eta Euskal Herria plaza eta Alondegia eta Lapurdi lurrazpiko aparkalekuak jarri zituen adibide moduan. Era berean, Udalak eginiko «ahallegina» nabarmendu zuen TAO sistemaren planteamendu berria egiterakoan.

Yurre Peñagarikanok, bere aldetik, bai dendariekin, bai eta bizilagunekin hitz egin ostean eginiko proposamena dela zehaztu zuen. Halaber, Alde Zaharra dela aparkaleku gutxien dituen eremua esan zuen, eta horregatik egin direla bertan aldaketa gehien.

Pedro Aizarnak Tolosa nabarmendu zuen, «eguneratzen eta egokitzen danielako», eta aldaketa hauekin hobekuntzak nabarituko direla ziur dagoela adierazi zuen.

Datorren astean herritar guztiek buzoietan jasoko dute herriaren plano bat, eta bertan «era errezean» ikusi ahalko da zein eremutan dauden aldaketak, eta horiek nolakoak diren.

» ALDAKETAK ZONAREN ARABERA

ALDAKETAK

1 Zonaldea handitu dute. Kale gehiago gehitu dituzte.

Bi aparkaleku mota berri:

■ Express aparkalekuan gehienez 20 minutuko iraupenez aparkatu ahalko da. Bertarako txartela eskuratzeko makina bereziak egongo dira.

■ TAO urdina duten hainbat guneetan 19:00etatik aurrera bertakoek soilik aparkatu ahalko dute.

TAO berdearen handitzea. Gune hau da ordaindu beharreko guneetan merkeena, goizez, arratsaldez edota egun osoan aparkatu daitekeelarik.

Bertakoentzako gune gehiago.

Gune gorridun aparkaleku gehiago jarriko dituzte 1 Zonaldean, 167 denera.

1 ZONA

■ **Eremuaren handitzea.** Larramendi, Ibaiondo, Arramele eta Uzturre kaleak gehitu dituzte.

■ **Express aparkalekuak.** Rondilla kalean eta Zumalakarregin 19 leku gorde dituzte.

■ **Bertakoentzat aparkalekuak.** 167 plaza gorde dituzte bertakoek soilik aparkatu ahal izateko, 24 orduetan eta asteburuetan. TAO gorria.

■ **Larramendi, Belate eta Zumardi txikia.** Guztira 300 aparkaleku izango dira bertakoentzat, 19:00etatik aurrera. TAO urdina duten guneak izaten jarraituko dute, baina txartelarekin aparkatu nahi dutenentzat orduetgia 09:00etatik 13:30era eta 16:30etik 19:00etara izango da.

Astelehenetik ostiralera 19:00etatik 09:00etara, larunbatetan 14:00etatik aurrera eta igandean egun osoan, bertakoek baino ezinongo dute aparkatu.

■ **Rondilla kalea.** 19:00etatik aurrera, eskuin aldean, bikoitietan, bertakoek aparkatu ahalko dute. 19:00etatik 08:00etara bitarte, 38 aparkaleku izango dira bertakoentzat, eta gainerako orduetan ez da aparkatzerik izango.

■ **TAO berde gehiago.** 70 aparkaleku gorde dituzte gune berde edo malgurako: 20 Belaten izango dira, eta beste 50ak Larramendin.

■ **2 eta 3 guneetan aparkatzeko aukera.** Orain arte bezala, 1 Zonaldeko txartela duten herritarrek 2 eta 3 guneetan aparkatu ahalko dute.

2 ZONA

■ **Express aparkalekuak.** Nafa-

roa etorbidean 14 leku gorde dituzte, eta horietan gehienez ere 20 minutu aparkatu ahal izango da aurrerrantzean.

■ **TAO berdea.** Araba etorbidean gune berdea edo malgua duten 60 leku gehigo egokitu dituzte.

4 ZONA

■ **TAO berdea.** Paper kalean gune berdea duten 36 aparkaleku jarri dituzte.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Araba etorbidean TAO berdeko 60 plaza berri jarri dituzte. I. GARCIA



Esperientzia Eskolako iazko ikasleek diploma jaso zuten atzo. I. TERRADILLOS

Esperientzia Eskolen ikasturte berria aurkeztu dute iazko ikasleak omenduz

Tolosa » Eusko Jaurilaritzaren diru-laguntza murrizketa «handiak» kritikatu ditu Mugabek.

ERREDAKZIOA

Mugabek sustatzen dituen Esperientzia Eskolen inguruan ekitaldi berezia ospatu zuten atzo udalaldean. Iazko ikasturtean Tolosan egon ziren ikasleek diplomak jaso zituzten bitartean, aurtengoek ongietorri ekitaldia bizitu zuten.

Hala eta guztiz ere, IV. promozio hau oraindik irekirik aurkitzen da, hau da, Esperientzia Eskolan izena eman nahi duenak aukera zabalik dauka oraindik. Horretarako, ondorengo telefono zenbakira deitu beharko da: 943 22 41 46ra.

Besteak beste, aurten, ikasleek ondorengo ikasgaiak edukiko dituzte Tolosako Esperientzia Eskolan: Gipuzkoako historia; Musika; Antropologia; Ekonomia; Filosofia; Informatika; Literatura tailerra; Memoriaren tailerra eta Artearen historia.

Diploma banaketa

Mugabe, gizartearen parte hartzea handitzearen aldeko elkarteak, 2004ean jaio zen, etengabeko formazioa eta pertsona helduen parte hartzea gizartearen handitzea helburu zuten elkarte ezberdinen loturaren ondorioz.

Lehenengo unetik Esperientzia Eskolen proiektua hartu zuten bere aktibitate nagusienetarikoz bezala, ordu arte, Matia Fundazioak garatzen zuena. Esperientzia Eskola, 2000. urtean sortu zen ondorengo helburuekin: «Erretiratuek infor-

matzeko, kultur formakuntza bat jasotzeko, pertsonarteko harremanak eta gizarte parte hartzea bultzatzeko aukera gehiago izan ditzaten. Baita zahartze egoki eta osasungarri baterako ere. Horrekin batera, helduen gizartetik erreturto potentzialak gizartera itzultzeko eta azkenik, gizartearen parte hartze aktibo bat lortzeko».

Helburu horien isla atzo Tolosako udalaldean elkartu ziren herritarrak ziren. Iaz Esperientzia Eskolan hartu zuten parte hauek eta atzo jaso zuten ikasturte amaierako diploma.

III. promozio honen izenean, Maria Jose Arrizabalagak hitz egin zuen: «Lehenik ongietorria eman nahi dizuegu aurten Esperientzia Eskolan parte hartuko duzuenoi. Kontuan izan, hauek ez dira behartuta hartzen genituen eskola haien modukoak. Zuek askatasunez aukeratu dituzten ikasgaiak dira eta jakintzan garatzen jarraitzeko aukera aprobetxatzea eskatzen dizuegu. Ikusiko duzue, irakasleek ikasgaiak bizi egiten dituztela eta kutsatu egiten zaituztela. Guk hori ezagutu dugu, ikasten eta gozatzen jarraitzeko aukera hain zuzen ere. Aukera hau laguntza eskatzeko ere aprobetxatu nahi dugu, izan ere, orain arteko ikasleen artean Beti Ikasten elkar-tesa osatu dugu eta laguntza beharrean aurkitzen gara».

Irasleen hitzaldiaren ondoren, diplomak jaso eta familia argazkia ateratu zuten.

Diru laguntzak behera

Ikasturte hasiera Mertxe De Pedrok aurkeztu zuen, Mugabeko presidentea. Bere esanetan, aurten arazo handiak eduki dituzte diru-laguntzekin: «Diputazioak eta Eusko Jaurilaritzak murrizketa handia egin digute, eta gainera, Eusko Jaurilaritzaren kasuan, azken unean jakinarazi ziguten. Eskolak ia antolatutik genituen eta ondorioz ezinean ibili gara». Tolosako Udalak laguntza horiek mantendu dituela ere azaldu zuten Mugabek.

Mertxe De Pedroren ondoren, hain juxtu, Eusko Jaurilaritzaren ordezkariari tokatu zitzaion hitz egitea. Jose Luis Elorzak formakuntzaren beharra azpimarratu zuen, horretarako adibide historikoak erabili zituen. Bere esanetan, jakintza onerako eta txarrerako erabil daiteke, ezberdintasun bakanak baloreak dira, «balorerik gabeko formakuntzak ez baitu ezer askorako balio».

Tolosako alkateak, Jokin Bildarratzek, herri orekatu baten beharraz hitz egin zuen. Formakuntza orekatua horren oinarrian dagoela azaldu zuen.

Arantxa Arrietak, Mugabeko ordezkariak, ikasle zaharrei zorionak eman eta ikasturte berriari begira, ongietorria eman zien hogeit berriei. Laugarren promozio hau oraindik irekirik aurkitzen dela gogoratu zuen Arrietak. Izena emateko Mugabek haren harremanetan jartzea eskatu zuen.

Nafarroako Goma Gaineko Sokatira Txapelketa etzi 17:00etan

Leitza » Eguraldi ona egiten baldin badu plazan jokatu da lehia, euria eginez gero berriz, frontoian.

ERREDAKZIOA

Datorren urriaren 30ean, larunbatean, Nafarroako Goma Gaineko Sokatira Txapelketari hasiera emanen diote Leitza.

Guztira lau jardunaldi jokatu dira. Gizonezkoak bi pisutan lehiatu dira eta zortziko taldeak izanen dira. Emakumezkoetan berriz, seiko taldeak izanen dira eta pisu bakarrean lehiatu dira.

Leitza, 630 kiloko lehen jardunaldiari dagokion lehia 17:00etan hasiko da. Eguraldi ona egiten baldin badu plazan ariko dira tiratzaileak eta txarra egingo balu berriz, frontoian.

Parte hartzaileak

Gizonezkoen proba bakarrik jokatuko da asteburu honetan eta ondorengo taldeak izango dira Leitza gerturatuko direnak: Berriozar, Amairu, Txantrea eta Basaburua-Imotz.

Larunbaterako pilotak aukeratu dituzte Barriolak eta Bengoetxeak

Leitza » Partida Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu da hilaren 30ean; irabazleak Retegi Biren aurka jokatu du.

ERREDAKZIOA

Lau terdiko final-zortzirenak ostiralean hasiko dira Balmasedan baina partidarik erakargarriena Bengoetxeak eta Barriolak elkarren kontra jokatu dutena izango da, larunbatean Iruñeko Labrit pilotalekua hain zuzen ere.

Bi leitzarrek pilotaleku honetan elkartu ziren atzo, pilota aukeraketan. Materialarekin ez zuten inongo arazorik izan eta Bengoetxea VI.a «gustura» ateratu zen Labritetik.

Abel Barriolak berriz, lesioa ahazturik duela azaldu zuen: «Fisikoki ongi aurkitzen nahiz, baita eskutik ere. Buruz berriz ilusio handiarekin nago. Ezin dut gehiago eskatu».

Barriolak 106,1 eta 106,7 gramoko pilotak aukeratu zituen eta Bengoetxea VI.ak 105,7 eta 106,7 gramokoak.

Lizartza Udal etxebizitza tasatuak

Ezartza mugagabeko bako bako den prezioan eskaintzen ditugu, udalak eta lizartzaileak hainbat hitzartuta.

Apuntia zailak azaroaren 11 baino lehen

Azkenik: Lizartzaileak

Lizartzaileak: 943 679 750

943 679 750

636 666 147

www.lizartza.com

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfibrak, etxeak, bulegoak... garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe 638 94 46 04 (Gurutze) edo 695 70 82 71 (Belen) telefonora.

■ **Haur zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko, emakumea behar da. Interesatuak deitu 600 86 95 04 telefono zenbakira.

Stock azokarekin «oso gustura» geratu dira merkatariak

Villabona » Bigarren urtez jarraian antolatute du Stock azoka. Jende ugari bildu zen eta salmenta onak izan ziren.

ERREDAKZIOA

Igandean, Villabonako Berdura plazan II. Stock Azoka izan zen. Bigarren urtez jarraian, herriko dendariek kalera ateratu zituzten beraien produktuak. Era guztieta-postuak izan ziren.

Eguraldia oso ongi portatu zela adierazi dute Ori Merkatarien Elkarteak antolatzaileek. Jende askok azokara joateko hautua egin zuen. II. Stock azokak eman duenaren «oso gustura» geratu dira eta «salmenta onak izan ziren» azpimarratu dute. Trikitilariekin alaitu zuten goiza eta giro ederren igaro zuten 10:00etatik 14:00ak bitarteko saioa. Haurrak ere, be-



Stock azokan, erosleen artean bi saski zozketatu zituzten. HITZA

raien jolasak izan zituzten. Azokan erosketak egin zituztenen artean, bi lote zozketatu zituzten eta Maider eta Aitziber neskak izan ziren zortedunak.

Hirugarrena izango da

Azokak izan zuen erantzuna kontuan izan da, antolatzaileak ziur

daude errepikatuko dutela. Ez dakite urteko zein garaitan egingo duten baina, egingo da.

Berdura plazan, tokia txiki antzera geratu zitzaizen eta agian Errebote plazan egin beharko dutela adierazi dute baina guztia, III. Stock azoka antolatzen hastean erabakiko dute.

Arbizon eta Sumd Coste Queillerera Oargitik

ERREDAKZIOA

Oargi Mendi Elkarteak azaroak 5, 6 eta 7rako irteera prestatu du Arbizon eta Sumd Coste Queillere mendietara. Ostiral arratsaldean Tolosatik abiatu eta St-Lary-Soulan egingo dute lo. Larunbatean Arbizon mendia igoko dute. Eta

Igandean, Sumd Coste Queillere mendia igotzen saiatuko dira. Izena emateko deitu 688698642 telefonora edo oargi@euskalnet.net (lehenbailen eman izena). Kranpoiak eta pioletak eraman beharko direla gogorazi dute.

Gutunak

Torturak ez!!! Joxi eta Joxean gogoan

Pasa den urriak 16ean, 27 urte bete ziren Joxi eta Joxean Galindo Jeneralaren agindupean Guardia Zibila desagerrarazi, torturatu eta erail zituztenetik GALen zenean. 27 urte pasata ere, gaur egun tortura errealtate gordina da Euskal Herrian. Azken 30 urteotan, kasik 10.000 euskal herritarrek torturak edo tratatu txarrak salatu ditu polizia ezberdinen esku egon ondoren eta hainbat dira Joxi eta Joxean bezala torturapean hildako lagunak, Joxe Arregi, Esteban Murueta-goiena, Mikel Zabalza, besteen artean.

Azken asteotan tortura testigantza berriak iritsi zaizkigu. Torturaz hitz egiten dugunean ez gara lehenaldian ari, orainaldian baiziki.

Torturarekin amaitzea guztion ardura da. Euskal Herrian eta nazioartean hamaika erakunde, alderdi politiko eta sindikatuk arbuatu dute inkomunikazioaren praktika. Amnistia International, Nazio Batuen Erakundeko begiraleak, Nazioarteko abokatu enklargo ezberdinak, Eusko Autonomi Elkarte parlamentua, Euskal Autonomi Elkarte Arartekoa, Euskal Herriko gehiengo sindikala e.a. Espainiako gobernuak muzin egin die eskaera hauei guztiei.

Inkomunikazioa erabiltzen jarraitzen du Espainiako Gobernuak tortura eta tratatu txarri bide eman ez. Torturaren eragina ez da komisarian amaitzen. Torturapean egindako deklarazioak frogaz bezala erabiltzen dira auzitegietan, eta frogak hauek herritarrek zigortzeko erabiltzen dira.

Gure herrian zabaldu den arlo politiko berrian torturaren gaia mahai gainean jarri nahi dugu. Giza eskubide guztien bermeaz hitz egiten ari garen honetan, torturarekin amaitzeak berebiziko garrantzia hartzen du.

Estrasburgok Espainiako Estatu zigortu du tortura salaketa bat ikertu ez izanagatik. Aste honetan, Mattin Sarasola eta Igor Portu torturaz egotzita guardia zibila akusatuen aulkian eseriko dira Donostian. Aste honetan, Maite Orue torturaz egotzita Espainiako Polizia Nazionalak akusatuen aulkian eseriko dira Madri-

len. Denbora igaro da gertaera haiekin baina oraindik orain ugaririk dira Espainiako Polizia Nazionalak, Guardia Zibila eta Ertzaintza buruturiko atxiloteten ostean torturatuak izan direla salatu duten euskal herritarrek, azken asteotan atxilotutako euskal herritarrek kasu, eta horien artean Villabonako Besance anaiak.

Tortura ezkutu mantentzeko ahalegina aspaldikoa da. Tortura salatu izana zigorraren jomugan dago. Torturatuak izan diren herritarrek auzibidean jarri dituzte beraiek jasandako salatu izanagatik. Torturatuak izan diren herritarren abokatuak auzibidean jarri dituzte beraien bezeroak jasan duena salatu izanagatik.

Egoera honetan, gaiak duen larritasunari loturik, honako eskaerak mahai gainean jarri nahi ditugu:

1. Tortura bera existitu izan dela, existitzen dela eta sistematikoki aplikatzen dela onartzea.

2. Torturarekin behin betirako amaitzea eskatzen dugu. Inor gehiago torturatu izan ez dadin beharrezkoak diren neurri etabermak aldarrikatzen ditugu.

3. Torturatu guztiengan birgaitze edo erreabilitazio demokratiko bategon dadin exijitzen dugu. Hau da, torturatuak izan diren pertsonen beharrezkoak duten laguntza eskaintzea, torturapean egindako autoinkulpazioetan oinarritutako epaiak bertan behera gelditzea, etab.

4. Erakunde publikoek konpromiso argiak eskatzen dizkiegu torturarekin amaitzeko eta horretarako eman behar den lehenengo pausua inkomunikazioarekin behingoz bukatzea da.

Beraz, torturarekin amaitzeko egin beharreko lanari lotzeko deia luzatzen dugu. Joxi, Joxean, eta torturapean eroritako guztiei egiturik daukagun eskaintzarik onena, torturarekin betiko amaitzea da, beste zereginen artean, eta zentzu honetan ere hitzordu bat jarri nahi dizuegu hurrengo urriak 30erako Donostian burutuko den Manifestazio Nazionalen parte hartzeko, «Torturarik ez» lelopean eta Antiguako tuneletik arratsaldeko 17:30etan aterako dena.

Mikel Zabala. Tolosako Amnistieren Aldeko Mugimenduaren izenean.



Liburuen Merkatu Txikia

ANOETA » Astelehenean hasita, lehenengoz liburuen Merkatu Txikia jarri dute udaletxearen aurrean. Igandean izan zen Liburutegien Nazioarteko Egunaren harira ari dira egiten Merkatu Txikia hau eta erantzun «bikaina» ari da izaten. Jende asko hurbildu da liburuak ikustera, eta baita erostera ere. Prezio sinbolikoa

dute bertan dauden liburuak, 0,50 zentimotik hasi eta 3 euro bitartean. Merkatu Txikia bihar arte jarriko da udaletxe aurrean 17:30etik 19:30era. Egunero liburu desberdinak jarriko dituzte salgai. Herritarrek gerturatzera animatu nahi dituzte, «aukera paregabea baita liburu onak merke eskuratzeko». HITZA



943 67 16 27 • Igaralde 4, baxua
20400 Tolosa


DENAK
taberna
2x1 eskaintza

Astelehenean ostegunera ogitartekoetan 2 pertsonentzako 2x1 eko eskaintza

- Eskaintzaz gozatu nahi duenak, **aurteik tabernara deitu** dezala joango dela esateko
- Kupoiaz gain, **harpidedun txartela** ere eraman beharko da
- Eskaintzaren iraingitze data, **2010eko abenduaren 31**

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**

Izen - Abizenak:.....
Harpidedun kodea:.....
Erreserba eguna:.....



Aro berriak, paperean eta sarean izango du bere eragina. A. IMAZ

Aro berriaren argazkia aterako dugu etzi

Tolosa » Larunbatean, 12:00etan Trianguloa plazako Gazteluko arkuaren aurrean elkartu eta argazkia aterako da.

ERREDAKZIOA

Laguntza eskatzera gatzoz oraingotan, harpidedun. Larunbateko egunkarian irakurriko zenuten bezala, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA eta 'Berria' egunkariak aro berri bati ekingo diogu azaroaren 5ean eta horixe gizarteratzeko txanda ere iritsi da. Aipatu moduan azaroaren 5ean izango

dira produktu berriak kalean, bai TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA bera eta baita GIPUZKOAKO HITZA ere, baina horren aurretik Tolosan argazki jendetsua nahi dugu atera larunbat honetan, hilak 30.


Argazki jendetsu honetan Tolosaldean eta Leitzaldean gure proiektuarekin bat egiten duzuen guztiak ateratzea nahi dugu. Hitzordua esan bezala, larunbatean izango da 12:00etan, Tolosako Trianguloa plazako Gaztelako atearen aurrean.

Etzi, hortaz, euskarazko prentzari babesa emateaz gain, herritarrei harpidedun egiteko deia luzatu nahi dugu.

Aldaketak

Aldaketei dagokionez, jada jakinago duzuen moduan, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA asteartetik ostiralera kaleratuko dugu. Beti bezala zortzi orrialdetako egunkaria jasoko duzue, baina honetaz gain ostiraletan beste produktu bat ere jasoko duzue: herrialdeko Hitza, hain justu. Tolosaldean, GIPUZKOAKO HITZA izango da eta Leitzala eta Areson, berriaz, NAFARROAKO HITZA.

'Berriako harpidedunek egunkari honekin batera TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA eta ostiraletan herrialdeko Hitza jasoko dituzte.



laz izan zen zeharkaldi herrikoieko irudi bat. SARA GOMEZ

Urteko azken festa egunetan Olarrain auzoaren txanda

Tolosa » XXII. Mendiko bizikletaren zeharkaldiaz gain, mus txapelketa, musika, bazkaria, afaria, haur jolasak,... izango dira.

ERREDAKZIOA

Urteko sasoi honetan ere herri eta auzoetako jaiez gozatzeko aukera izaten da. Jaiak amaierara iristen ari badira ere, asteburuan, Olarrain auzoan festa giroa izango da.

Bihar, 22:00etan hasita Mus Txapelketa izango da. Larunbatean, 21:00etan auzokideen arteko afaria egingo dute. Ondoren, Eneritz eta Edurne trikitilariekin dantza saioa izango da. Igandea egun handia izango da. Goizeko 10:00etan, Lagun Artea elkartek

antolatzen duen trabesiari irteera emango zaio. Aurtengoa XXII. Zeharkaldi Herrikoia Mendiko Bizikletaz izango da. Izena ematea, 08:30etatik 09:30era egingo da elkartean bertan. Parte hartzaile guztien artean, mendiko bizikleta eta beste hainbat sari zozketatuko dituzte. 14 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute.

11:30ean, auzoko helduen ohiko hamaiketakoia izango da. 12:00etan umeen jolasak izango dira. 14:00etan, auzokideen arteko bazkaria izango dute Bixente Gorostidi eta Ekaitz Goikoetxea bertsolariekin. Jarraian, dantza egiteko aukera izango dute Edurne eta Eneritzekin.

San Martinak gainean ditugu eta hurrengo jaien txanda datorren astean Amasan izango da.



Harpidedun izateak badu saria

harpidedunen
TXOKOA hitza

①

SASKIBALOA

Urriaren 31an Illunben jokatu den **Lagun Aro GBC - Blancos de Rueda Valladolid** partidarako **sarrera pare bat**



②

DISKOAK

Gaztelupeko Hotsak disketearen eskutik, Urko Menaiaeren **"Ametsak eta Oroitzapenak"** eta Bide Ertzean taldearen **"Don inorrez"** disken **bina ale**



③

JAIALDIA

Azaroaren 5an ostiralera iluntzeko 20:30ean **Tolosako Leidorren** ospatuko den **IX. Nazioarteko Trikitixa Jaialdirako bi sarrera pare**



④

ANTZERKIA

Datorren **azaroaren 6an** larunbata arratsaldeko 17:00etatik aurrera **Tolosako Topic-en** eskainiko den **Robot Maitea** antzezlanerako **bi sarrera pare**



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kidea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunetan, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.



Abesbatzako kideek erabilitako zenbait jantzi ikusi daitezke erakusketan. I. GARCIA



Bidaietako oroigarriak ikusgai daude partiturekin batera. I. GARCIA

Oroitzapenak ikusgai

Alegia » Txintxarri abesbatzak erakusketa jarri du Kultur Etxean, bere 50 urteei erreposoa eginez; etzi arte egongo da ikusgai.

IMANOL GARCIA

Txintxarri Egunaren ondoren herriko abesbatzak 50. urteurrenoko erakusketa antolatu du Alegiako Kultur Etxean. Datorren larunbata arte dago ikusgai eta bertan azken mende erdiko hainbat objektu ikusi daitezke. Gaur eta bihar erakusketa zabalik dago 18:30etik 20:00ak arte, eta etzi 11:00etatik 12:30ak arte.

Kultur Etxeko ludotekan dago erakusketa, hainbatetan iraganera bidaia egiteko bide ematen duena. Esaterako, abesbatzako kideen

zenbait jantzi daude zintzilikatuta, tartean koruaren hasierako urteetan soinean eramaten zituztenak.

Argazkien xarma

Txintxarri abesbatzak atzerrira bidaia bat baino gehiago egin ditu eta horien erakusle dira erakusketaren alde batean dauden oroigarriak. Horien ondoan daude ere zenbait kanten partiturak eta baita Joxe Gastesik koruaren 40. urteurrenaren harira idatzi zuen liburuaren ale bat.

Talde baten historiari erreposoa

egiterakoan ezinbestekoa izaten dira argazkiak, eta zaharrak badira hobe. Erakusketan hainbat argazki daude, asko zuri beltzean. Aukera ona Txintxarri abesbatzatik igaro diren kideak ezagutzeko. Beste alde batean hainbat hedabideetan abesbatzaren inguruko albisteak jasotzen dira.

Erakusketan sartu eta berehala gelaren erdian dagoen atrilak erakartzen du bisitaria. Une batez zuzendari sentitzeko aukera ematen du eta argazkien panoramika jasotzeko.

50. urteurrenoko ekitaldi nagusiena pasatu bada ere, hau da, Txintxarri Eguna, abesbatzak aurrerera begira jarraitzen du. Izan ere, Eguberrietan, besteak beste, ohiko kontzertua emango dute.



Argazkiak dira erakusketaren oinarrietako bat. I. GARCIA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HILBETAREN BAIHOA
Ezema Imperala

FUNERARIA VASCONGADA

902 402 900

www.funeraria.vascogada.com

Txapelketa ugari gaur zortzi hasiko den Kultur Astearen baitan

Berastegi » Azaroaren 7an ekingo diete ekitaldiei; lehia ugari izango dira bertan: arroz-esnearena, gaztarena, ardi-ahari eta abarrena.



Aurten, azaroaren 14an egingo dute azoka berezia. I. LAHALDALGA

ERREDAKZIOA

Gaur zortzi hasiko da Berastegiko Kultur Astea. Kultura Batzordeak antolatuta, hitzaldiak, antzerki saioak, otorduak, tailerrak... izango dira azaroaren 4tik 14ra bitartean. Idoia Sanchez ipuin kontalariak irekiko du bidea, eta talo jateak itxi. Bitarte horretan, Argazki Rallyko argazkiak ikusgai egongo dira aparkaleku azpiko lokalean. Bes-

etik, Luis Erasoren egur lanak ezagutzeko aukera izango da azaroaren 13 eta 14an. Bere tailerra bisitatu ahal izango du jendeak, goizez, 10:00etatik 13:00etara, eta arratsaldeaz, 16:00etatik 20:00etara.

Aurtengo honetan ere txapelketa ugari jokatuko dira Kultur Astearen baitan. Hasteko, azaroaren 6an, II. Arroz-esne txapelketa jokatuko da. Gainera, luxuzko epai-mahaia izango dute. David de Jorge sukaldari ezaguna bertan izango baita. Azaroaren 14ko Azoka egunean berriz, beste bi lehia-keta: Gazta txapelketa, eta Ardi-ahari eta bildotsena jokatuko dira goizean zehar.

» BERASTEGIKO KULTUR ASTEA

Azaroak 4, osteguna

■ **17:00.** Idoia Sanchez ipuin kontalariaren saioa eskolako jangelan.
■ **21:00.** *Senegaletik pateran etortako baten esperientzia* hitzaldia eskolako ganbaran.

Azaroak 5, ostirala

■ **16:30.** *Pista joko*a haurrentzako. Euria egingo balu DVD emanaldia emango da eta pista jokoaz azaroaren 12an 16:30ean egingo litzake.
■ **21:30.** In vino fabula izeneko ardoaren historiari buruzko ipuin kontalari berezia bat Koldo Amestoy eta Pantxis Vidar-en eskutik. Helduentzat, gimnasioan.

Azaroak 6, larunbata

■ **17:00.** II. Arroz-esne txapelketa. Epai-mahaian David de Jorge Ro-

bin food... (aparkaleku azpiko lokalean).

■ **18:00.** Gaztaina erretzea pilotalekuan.
■ **Ondoren.** Afari-merienda eta arroz-esne dastatzea. Gero, arroz-esne txapelketako sari banaketa eta *Arrabots* euskal musika taldea gorputzak mugitzeko.

Azaroak 7, igandea

■ **16:00.** *Musika tresnen lantegia* lana ikusgai Sointek talderan eskutik. Pilotalekuan izango da haurrentzako antzerkia.
■ **17:00.** Eskularen tailerra.
■ **Ondoren.** Txokolatada.
■ **19:00.** Berastegiko gure aitona Ahotsak eta istorioak (www.ahotsak.com) (eskolako ganbaran).

Azaroak 12, ostirala

■ **16:00.** Haurrentzat DVD emanaldia Eskolako ganbaran.
■ **21:00.** Eneko eta Mayuki: *Hego Amerika tandemean* ikus-entzunezkoa ikusgai Eskolako ganbaran.

Azaroak 13, larunbata

■ **15:30.** Mus txapelketa azkar herrikoia Basurde elkartearen.
■ **16:00.** Gazteen II. Duatloia pilotalekuan.
■ **Ondoren.** Haurrentzako merienda.
■ **17:00.** Paulo Iztuetaren liburuen aurkezpena: *Berastegi iraganetik gaur egunera*, Eskolako Ganbaran.
■ **19:00.** Eskola-Gurutziaga Donostiako abesbatzaren emanaldia.

Juan Jose Ocon da Zuzendaria, eta pianoan, Jon Alberdin ariko da. Eskolako ganbaran izango da saioa.
■ **22:30.** Bertso saioa, eskolako gimnasioan.

Azaroak 14, igandea XII. AZOKA EGUNA

■ **Goizean zehar.** Bertako produktak eskuragai izango dira: barazkiak, gazta, ezti, eskulanak... Honez gain, Gazta Txapelketa, I. Euskal-oilo erakusketa, III. Ardi-ahari eta bildots txapelketa eta IV. animalia eta abere erakusketa egingo dira.
■ **13:00.** Ekintza guztietako sari banaketa.
■ **18:00.** Talo jatea goizeko gaztak dastatuaz eta ardo eta sagardoarekin bustiaz.

Laburrak

Gaur egungo egoera politikoa hizpide, gaur

ZIZURKIL » Zizurkilgo Ezker Abertzaleak deituta, herri batzarra egingo dute gaur, 20:30ean, Iriarte kultur etxean. Bertan, gaur egungo egoera politikoa izango dute hizpide, baita datorren urteko hauteskundeak ere. Deialdia luza-tu dutenek herritar guztiak gonbidatu dituzte bilkuran parte hartzera.

Presoen inguruko batzarra deitu dute gaurko

IBARRA » Amnistiaren Aldeko Mugimenduak batzarra deitu du euskal presoen inguruan hitz egiteko. Gaur 19:30ean egingo den bilkuran «egoera politiko berrian ikasurteko perspektiba» zehaztuko dute. Hala, antolatzaileek ibartar guztiak dei egiten die bertara hurbiltzeko.

Ohiko Osoko Bilkura egingo du bihar Udalak

LEITZA » Udaltzarak deituta, Ohiko Osoko Bilkura egingo dute bihar 21:00etan, udaletxeko Batzar Aretoan. Bertan, besteak beste, gaur hauek jorratuko dituzte: 2011. urterako zerga-tipo eta tasen onepena; plaka frankistak kentzeko mozioa eta Nafarroako hondakinen plan integralen inguruko mozioa.



2011 agenda

Dagoeneko salgai!



12€

• Liburu dendetan
• www.euskalherriko plaza.com

Ezaugarriak:

- Hiru urtetako egutegia
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepide mapa
- Aste osoa ikusgai

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**



Baseria mintzagai nagusi

IKAZTEGIETA » Rafa Uribarren Landa Ingurumeneko Departamentuko diputatua ikaztegiatarrekin elkartu zen herenegun, Liburutegian. Diputazioak azken 3 urteetan landutako Kudeaketa Planaren berri eman zuen aurrenik diputatuak. Segidan, han bildutako herritarrek euren iritzi eta ekarpenak aurkezteko eta diputatuarekin partekatzeko aukera izan zuten. Baserritarren egoera, baserriko produktuak, adindunentzako laguntzak eta ur-saneamendua izan ziren, besteak beste, bileran landutako gaiak. HITZA

MUNDUKO SUKALDARITZA → EUSKAL HERRIAN

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 4. alea

ALEMANIA • JAPONIA
MAROKO • BREITANIA
INDIA • MEXIKO • VIETNAM
ARGENTINA • LIBANO
ITALIA • TXINA

berriekin eskaintza berezia

EGIN ESKAERA urriaren 29a baino lehen www.berria.info harpidetza@berria.info 943-30 43 45

Laguntzailea FAGOR AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibaraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leizta, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Villabona.** Azaroaren 27an Euskal Herriko lehen antzerkizale eguna antolatuta nahi dute. Villabonako Euskal Herriko Euskaraz lan taldea osatu nahian dabil eta dei egiten diete parte hartu nahi dutenei.

Erakusketa

- **Tolosa.** Irudiak erakusketa GKO Galerian.
- **Tolosa.** Hildakoak hilobietatik ateraz, duintasunak berreskuratuz erakusketa Kultur Etxean, Aranzadi Zientzia elkartearen eskutik.
- **Ibarra.** Alurr dantza taldeak antolatutako argazki erakusketa ikusgai da egun hauetan Benito Izagirre kultur etxean.
- **Tolosa.** Ignazio Elizaranen erakusketa ikusgai Aranburu jauregian.
- **Tolosa.** Indonesiako Txotxongi-loak erakusketa Topic-en.
- **Tolosa.** Jon Balentziaga eta Enrique Zeberio pertsona gorrek egini-

ko obren erakusketa izango da ikusgai Fronton kafetegian.
■ **Tolosa eta Alegia.** Lore lehorrekin egindako lanak ikusgai Tolosako Lanbroa tabernan eta Alegiako jubilatuen tabernan. Itziar artista rundarrak eginak.

Hitzaldia

■ **Tolosa.** Hildakoak hilobietatik ateraz, duintasunak berreskuratuz hitzaldia Francisco Etxeberria Aranzadiko Antropologia Fisikoaren Zuzendariaren eskutik, udaletxeko batzar aretoan 19:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Leizta.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan eta iritzien erantzukizunik.



Pantaila akustikoen obrak hasi dira

TOLOSA Voith-Gorostidiko urbanizazio obren baitan Gipuzkoako Foru Aldundiak baimena eman du pantaila akustikoak jartzeko N-1 errepidean. Pantailak Santa Lutziatik hasi eta Arrameleko ermitaraino jarri-

ko dituzte. Dagoeneko hasi dira lanak egiten eta bi hilabete inguru iraungo dute. Tarteka errail bat itxi egin beharko dute eta, Diputazioak hala araututa, ixtea gauzez izango da. E.MAIZ

A Agurrak



Zurekiko maitasunek elkartzen gatto ta askatasunen biden bidelagun izango gattozo. Matte zattu!

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leiztan: Udaletxeko bulegoa

agurrak



Helduentzat eta umeentzat

Abenduak 24arte egiten diren erosketengatik 3 zozketatan parte hartuko duzu:

- Spa zirkuito bat
- Posada batean aste bukaera
- Paradore batean aste bukaera



Errementari Kalea, z/g TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30

LENTZERIA